

**BIZITEGI ERAIKINA**  
D MAILA**HONDARRIBIA 15**

**Egilea eta data: Jose Maria Mujica; 1890**

**Deskribapena.**

Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta hiru goi oin dituena, gehi 1956ko hiru jasodura, lehena fatxada planoan (jatorrizko teilatupearen berritze gisa, leihoak ditu balkoirako ateen orde) eta beste biak atzeraemanak. Harlanduzko fatxada. Behe oineko hiru baoetatik bi batu egin ziren 1919ko proiektuan, eta hirugarrena 1957an. Horretarako marmolezko pilastrak eta brontzezko kapitelak antolatu ziren, Hondarribia 13ren kasuan bezalaxe. Jatorrizko proiektu komuna (hirugarren oinera arte) Hondarribia 13rekin eta San Martin 18rekin eta 16rekin.

**Babes erregimena.**

## 1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihala, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

## 2.- Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodura atzeraemanak (5. eta 6. goi oinak).

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.